

## ● "ZERU TRUKEA"

# "Zeru trukea" egin dabe berriro be Gernikak eta Berlinek Bakearen Egun Internazionallean

"Himmelstausch" (zeru trukea) proiektua abian jarri dabe hainbat gernikar eta alemaniarrek irail honetan. Gernika Gogoratuz-eko Europako programak eroaten dabezan Andreas Schäfterrek honetan parte hartu eban Astran; Damaris Pan (EHU-ko kidea), Angela Lopez (Gernikako artista), Maitane Azurmendi (Gernikako Lobak-ekoa) eta proiektua sortu dabean Michael Klantegaz batera. Aste bete egon ziren margotzen. "Abuztuaren 27tik irailaren 5era arte", azaldu dau Schäfterrek. Horrez gain, Gernika Gogoratuz-ekoek bestelako proiektu batzuk atera dabezela aipatu dabe.




Michael Klantek, arte irakasleak, zeru trukearen ideia hau "orain dala bi urtetik" euki eban, Andreas Schäfterren arabera. Europako programak eramaten dabezan Gernika Gogoratuz-eko kideari artista alemaniarrekin lotutako harremana zelan suertatu jakon adierazi dau: "Udaletxeari esker hasi ginan berbetan Klantegaz, bera

baitzegoan kontaktuen bila". Proiektuari buruzko ideia bota ondoren baiezkoa emon eutsen Gernika Gogoratuz taldekoek eta lanean hasi ziren irailaren 21ean Berlineko "lainoak" Gernikako herrian erakusteko.

Lehenengo Berlinen egin zan proiektu hau, apirilaren 26an, Gernikako

bonbardaketaren 82. urteurrenagatik; gero, Gernikan, bakearen hirian, egin da irailaren 21ean, Bakearen Egun Internazionalaren eguna izan dalako. Lehenengo Alemaniako hiriburuan egitea erabaki zan, neurri batean, bertatik "Gernika bonbardatzeko agindua" etorri zalako, Schäfterren esanetan. "Ardatz horretatik sortu zan proiektu hau", aipatu



” **Gizakiak mugitu egin gaitzke nahi dogun lekura. Hortaz, lainoak bezala. Andreas Schäfter**

dau Europako programak eramaten dabezan kideak. Orain Gernikan bardina, baina alderantziz egitea erabaki dabe.

Klanten “ideia” Berlingen eta Gernikan zerbait egitea izan zala azaldu dau Gernika Gogoratuz taldekoak: “Bi herriak harremantzeko erakusketa izan da”. Artista alemaniarraren ideia hau arinagotik datorrela azaldu dau Schäfterrek, Floridan (Ameriketako Estatu Batuak) bardina pentsatu ebelako: “Hegazkin bat pankarta erraldoi bategaz joatea hirian zehar”. Orain, hilabete honetan, horrelako pankarta bat egitea eta Gernikako zeruan ikustea lortu dau. Zerua eta lainoak margotuta ikusten diran 100 metro karratuko pankarta erraldoi bat izan da Gernikatik bueltaka ibili dana.

Schäfterrek “lainoak” zergatik jarri dabezen azaldu dau, pertsonentzako “asko” esan nahi dabela eta danentzako zerbait “bizia” dala aipatuz: “Gizakien etxeko teilatua da. Ez dago mugarik. Gainera, zuria bakearen kolorea da leku askotan”. Gernika Gogoratuz-eko kideak gehiago sakondu dau, “metafora” bat dala esanez: “Gizakiak mugitu egin gaitzke nahi dogun lekura. Hortaz, lainoak bezala, askeak gara”.

Klant-ek “hemengo zeruaren” argazki batzuk hartu ebazala eta Berlingen “bardina” egin ebala esan dau Europako programak eramaten dabezan kideak. Azkenean, erakutsi gura izan dabena da “zeruak bardinak” dirala denontzako eta “bardin” jakola Gernikako edo Berlineko lainoak erakustea. Biak dira mundukoak. Gainera, bakea sustatzeko “truke” bat egin dala dio Schäfterrek “Himmelstausch” proiektu honetan. Izen honek esan gura dabena da “elkar ulertze bat” dagoala eta herrien arteko “keinu” bat egiten dala, “zeru trukea” izateaz gain.

Irailaren 21ean leku askotatik pasatu zan zerua eta lainoak erakusten dabezen pankarta hau (hegazkin batek oratzen zuen). Hori egitea “kostatu” egin jakela aipatu dau Schäfterrek. Berak margozten “lagundu” ebala azaldu dau eta, Michael Klantegaz batera, Maitane Azurmendik, Angela Lopezek eta Damaris Panek lan “ikaragarria” egin ebela.

Behin irudia eginda, Bakearen Eguna iristean (irailak 21), Dimatik irteeta erabaki eben errepublikanoen aireportua hor egoalako. Dimatik Otxandiora pasatu zan, herri honek Gerra Zibilaren “lehenengoetariko” bonbaketa pairatu ebalako. Otxandion, faxistek errepublikanoen “logoak” engainatzeko jartzen ebezala gaineratu dau Europako programak eramaten dabezan Gernika Gogoratuz-eko kideak. Bi herri hauetatik pasatuz, Durangora jo eban hegazkinak, hain justu, Euskal Herrian egon dan bonbaketarik okerrera pairatu eban herrira, Schäfterren esanetan.



San Jaun Ibarra Plaza / Gernika-Lumo (Bizkaia)  
Tel.: 946 509 296

**Oilaskoa erreta  
Bokatak  
Razioak  
Kafetegia  
Garagardotegia**




“Gerra Zibilean sufritu eben herrialdeetatik pasatu gara; hori izan da helburua” Andreas Schäfter

“Zer eta zergatik gertatu zan jakin behar da. Horrek eroaten gaitu orainaldira. Horrek erakusten deusku zelako erantzukizuna daukagun orainaldian. Andreas Schäfter

“Azkenean Gerra Zibilean sufritu eben herrialdeetatik pasatu gara; hori izan da helburua: Zornotza, Galdakao edo Santurtzitik (bertatik atera ziren errefuxiatuak Frantzia eta Ingalaterrara eramateko) pasatzea, besteak beste”, azaldu dau Europako programen arduradunak. Beraz, erakusketa hau Gerra Zibilean sufritu ebenek, edo hauen ondorengoek, ikusi dabe. Gernikan ere ikusle asko egon dirala azaldu dabe Gernika Gogoratuz taldekoek, hegazkina Larrabetzutik eta Morgatik bueltatu zala esanez.

Ainhoa Añorga etorri zen, Gernika Gogoratuz-ekin kontaktuan jarri ostean. Añorga Gernika eta Berlin harremantzen dabena, Euskal Herritik kanpo euskal kultura zer dan erakusten dabena eta “Deutsch-Baskischer Kulturverein”-eko presidentea da eta ez dau gura izan Bakearen Egunean egin zan erakusketa hau galdu. Gernika Gogoratuz-eko kideek, ostera, ez zirela “Berliren egon” azaldu dabe, “egun espeziala” izan zalako: “apirilaren 26a”. Hemen gauza asko egin behar izan zirela azaldu du Ojangurennek, Gernika Gogoratuz-eko zuzendariak. Hala ere, Angela Lopez eta Maitane Azurmendi han egon ziren Gernikako zerua bertan moldatzeko, herriaren 82.urteurrenean.



Izan be, 82 urte pasa dira Gernikako bonbardaketatik. Bertan “Iurrean”, eta ez hegazkinean, egon zan soldaduetako bat Michael Klanten aita izan zan, Schäfterren esanetan. Beragaz harremanetan jartzea sekulako aukera izan da Gernika Gogoratuz-eko kideentzako. Hori bai, ez da izan talde honegaz harremana euki daben alemaniar bakarra. Aurretik be bonbaketan parte hartu ebenen familia kide batzuek harremanetan jarri dirala azaldu dau Maria Ojanguren zuzendariak. Alemaniarrak jarri ziren eurekaz kontaktuan. “Eurek etorri egin ziren apirilean egiten dogun ekitaldira”, aipatu dau zuzendariak. Dieprand von Richthofen eta Karl-Benedikt von Moreau familiak ez egon zirela azaldu dabe.

Apirilaren 26a egun berezia da Gernikan eta Klantek badaki. Hori dala eta erabaki eban Berlinen Gernikako lainoak erakusten

dabean hegazkina erabili, eta pasa dan hilabetean alderantziz egitea. Schäfterrentzako ideia hau gertatutakoa “oroitzeko” ezinbestekoa dala aipatu dau, baina ez dala lehenaldian geratu behar. Geratu baino, jakin egin behar dala dio, ostera: “zer eta zergatik gertatu zan jakin. Horrek eroaten gaitu orainaldira. Horrek erakusten deusku zelako erantzukizuna daukagun orainaldian”, azaldu dau Europako programak eroaten daben kideak.

Gernika Gogoratuz-ekoen arabera, Klantek, orain arte, egin daben proiekturik politikoena da eta honen inguruan bestelako gauza batzuk egiteko ideia ere dauka. Hori ondo datorkie Maria Ojanguren eta Andreas Schäfterri. Artista alemaniarrak egiten dabean lan edo proiektuek beraiek duten antzeko helburuak dabezala adierazi dabe. “Proiektu honek guk normalean lantzen doguzan elementu guztiak dauke eta horregatik parte hartu dogu”, adierazi dau Schäfterrek, beraiantzako “opari” bat izan dala gaineratuz.

#### Azalpena alderantziz

Gernikako bonbaketa ospetsua izan zan, hein batean Picassoren koadroa egin zalako. Koadro horrek Gerra Zibileko errealitatea erakusten dau kubismo eran. Orain arte koadroaren azalpena gaizki jarrita egon da Nazio Batuen webgunean. Hori dala eta, Gernikako Michael Klanten proiektuaz gain, Picassoren koadroaren azalpena ere albiste izan da iraileko hilabetean. Izan be, Gerra Zibilaren “hondamendia errepublikanoek” egin ebela jartzen eban mundu guztian famatua dan Nazio Batuetako webgunean.



**OKINDEGIA**  
**Labakoa**  
Don Tello k.,8 • Tel.: 94 625 09 44  
Don Tello k.,11 • Tel.: 94 625 85 11  
GERNIKA

**Algelek, s.l.**  
**Material Elektrikoa**  
Juan Kallzada, 69  
Tfno./ Fax: 94 625 63 79  
Móvil: 907 33 20 42  
48300 GERNIKA-LUMO

**inigo**  
**dekorazioa**  
**TAPIZERIAK ETA DEKORAZIOA**  
DENDA  
Artekale, 7  
☎ 94 625 46 37  
ERAKUSKETA  
Iñigo Lopez de Haro  
Mug.: 649 781 704  
48300 GERNIKA-LUMO Bizkaia

**ZUBI**  
**aholkularitza**  
Kontabilitate, nominak  
aseguruak, kontratuak  
propietarioen komunitateak  
Askatasun kalea, 5  
Tel.: 94 625 81 96 / faxa: 94 625 76 43  
48300 GERNIKA-LUMO  
**Grupo pbu pbuasesores**

” Proiektu honek guk normalean lantzen doguzan elementu guztiak ditu eta horregatik parte hartu dogu. Andreas Schäfter



Horrela egoan jarrita: “Fue una protesta artística contra las atrocidades de la República durante la Guerra Civil española”.

Irailaren 14an Javier Alfonso Cendon politikariak Twitter bidez salatu eban hau. “Txio” harek jakinarazi eban akats hori egoala eta argitaratuta egon dala hainbat urtetan. Gernika Gogoratuz-ek “akats itzela” dala aipatu dau, eta “gehiago oraindik” Nazio Batuetako “webgunean” agertzen bada. “Behintzat”, hori zuzendu egin dala eta Nazio Batuetako bozeramaileak “barkamena” eskatu dabela esan dau Maria Ojangurennek. “Zaila” izan da, era berean, arinago konturatzea hau egoala, zuzendariaren ustez. Izan be, “informazio gehiegi” dagoala eta dana ezin dala arakatu dio Ojangurennek. “Kontuz ibili behar da iturriekaz, beraz, kontrastatu egin behar dira”, esan dau. Baita horrelako webgune ofizial edo fidatzekoak direnean be. “Ez jat okurrizten pentsatzea horrelako webguneetan akatsik egon daitekenik, baina begira, egon da”, bukatu dau Ojangurennek.

### Beste proiektu batzuk


Bakearen Egun Internazionalen dana ondo joateko lan izugarria egin dabe Gernika Gogoratuz-ekoek, baina proiektu asko dagoz Himmelstauch-en atzetik. Adibidez, “Memoria Lab” jada argitaratuta dago. Ojangurenen esanetan, Gernika Gogoratuz-eko webgunean dago eskuragai udatik. Horrez gain, Astran urte amaierara arte “online kurtso bat” antolatuko dabela eta urtero azaroan egiten dan “antimilitarista eta memoria historikoaren jardunaldiak” egingo dirala azaldu dau zuzendariak.

“Ciudad de la Paz. Siglo XX” proiektua be egin dabe oraingo urterako. Printzipioz “gonbidapen” bat dala aipatu dau Schäfterrek, DBH eta batxilergoko ikasleei bideratuta dago. “Guk aprobetxatzen dogu Gernikako sinbologia, eta horregaz gauza asko landu daitekez”, adierazi dau Europako programen arduradunak: “Memoria eta bakea, artea eta bakea, giza eskubideak eta bakea, ardatz asko lantzen dira”. Ibilbide ezberdinak egingo dira Gernikatik zehar. “Bertako leku garrantzitsuak erakutsiko doguz”, dio Schäfterrek.

Egindako proiektu hau bakearen aldeko hezkuntza programa dala aipatu dau

zuzendariak, Euskadiko zentro guztietara bideratuta dagoala esateaz gain. “Astran ikasleekaz hausnarketarako tailerra egiten da Ibilbide horretan ikusi diran puntuak aztertzeko”, azpimarratu dau Ojangurennek. Bost gai planteatzen dira eta erabakitako gaiaren arabera “bisita bat” edo “beste bat” egiten dala jakinarazi dau.

Webgunean (Gernikagogoratuz.org) dana dagoala eta azken albisteak emango dirala esan dau. Azken berria urriaren 3an argitaratutako solasaldi eta dokumentala izan da: “Urdaibai: oreka biziak”. FMK Mediak ekoiztutako dokumentala da.



**GARBILAN**  
GARBIKETAK

**GARBIKETA ZERBITZUA  
MANTENIMENDU INTEGRALA**

Torre barri - 6, 2.B • FORUA  
Tel.: 94 625 54 85 • Mug.: 699 054 829

*Trusquieta*  
*bizikiak - zilarra-erlojuak*



Santa Maria, zig / 76 p.k. / 48300 GERNIKA  
Tel.: 94 625 11 75

**ATXARRE**  
Taberna kafetegia • Bar cafeteria



94 627 66 79

Antzora, 24 - Laidako Hondartza - 48311 Ibarrangelu

**zimela**  
jatetxea

Carlos Gangotxi, 57  
Tel.: 94 625 10 12 - Faxe: 94 625 56 77  
zimela@zimela.com  
www.zimela.com / www.zimela.es